


7. Gogoratzuz: Jorge Oteitza Enbil

Gure aurreindoeuroparraren euskal filologiarako nozioak: Intruder mesianikoa ala euskal leonardo bat?

Xabier Renteria Uriartek moldatuta



7.1. Nor (Iturria: Wikipedia)

a) Bizitza / His life / Vida

- Euskal eskultore eta arte teorilaria zen. Eduardo Chillidarekin batera, XX. mendeko euskal eskultorerik garrantzitsuenak da, eta bere itzala mundu guztira zabaldu da, XX. mendeko bigarren erdiko abangoardia artistikoetan izan baitu eragina, baita Euskal Herritik kanpo ere, esperimentazioarekin eta arteak gizartearen eraldatzeko duen ahalekin erabat konprometitutako sortzaile gisa.
- Euskal Herriko hainbat pentsalari, artista eta arkitektoengana eragin handia izan du, "euskal arima" berreskuratzea izan baitzuen helburu.
- Espazioari buruzko gogoetan oinarritu zuen bere lana: bolumenaren eta espazioaren arteko analisia irudi karratuen eta esferen bidez; espazioaren hustuketari buruzko ikerketa. Haren lana konstruktibismoetik abiatu bazen ere, bere ondorioek minimalismoaren sortzaileetako bat bihurtzen dute.
- Arantzazuko lanaz eta Londresko monumentuaz hizkera espazial eta abstraktu berri bat erdietsi nahi zuen Oteitzak, euskal abangoardia bat sortuko zuena. Historiaurrean eratu zen "euskal arima jatorrizkoa" izango da Oteitzaren kezka gailenena orduan eta geroago.
- Euskal pentsaera eta estetikaren ezaugarri nagusiak euskararen erroetan bilatzen saiatu zen. Quousque Tandem saiakeran euskal arimaren estetikaren interpretazioa aztertu zuen, historiaurreko artean eta antropologian erroak bilatzen zituena, berariaz asmatuak sistema filologiko-poetikoen bidez. Antzinako gizakiak mundua nola ikusten zuten jakitea izan zuten helburu bere ikerketek, naturarekiko harreman eta ikuskera hori gizaki hark hizkuntzan eta artean nola zizelatu zuen jakin eta aditzera eman ahal izateko, euskal historiaurreko harrespil, zutarri eta trikuharriak ulertzeko. Huts eta harro hitzen estetika-etimologiak erabili zituen antzinako ikuskera horiek ulertzeko.
- Oteitzak berak idatziko du: "Atzeraka idazten dut. Aurreraka begira, baina atzera jotzen dudala, atzeraka noala". Oteitzaren ustetan, atzera eginez, historiaurreko gizonarekin, indoeuropar aurrekoarekin bat egitera jotzen du, kutsatu gabe dagoen gunera, aurreraka jotzeko, hau da, abangoardiara (azpigitulu argigarri bat dakar

liburuak 1963ko argitalpenean: Euskal arimaren ulerpide estetikorako saioa). Euskal estiloa izango zen euskal berpizkundea ekarriko zuena, munduko modernotasuna sor zezakeena.

- *Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo* (1996), bere azken obran, Oteitzak bere giltzarrietako bat den hizkuntzalaritza aurreindoeuroparrari helduko dio: han ustez igertzen dituen intuizioak agerian jarri nahi ditu, latinak euskara kutsatu aurretiko izpiritu estetikoak oratu nahirik. Berrito ere atzeraka jotzen du aurreraka egiteko, jatorrira jotzen du gaurko mundua ulertzeko.

b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- Xede esperimentalak (Propósito experimental)
- Arte garaikidearen amaiera (El final del arte contemporáneo)
- Quousque Tandem...!, euskal arimaren interpretazio estetikoak (Quousque Tandem...!, interpretación estética del alma vasca)
- Arrautzaren estetika. Euskal pentsamoldea eta labirintua (Estética del huevo. Mentalidad vasca y laberinto)
- Giza eredua haurarentzat herrialde bakoitzean (Un modelo de hombre para el niño en cada país)
- Gogo-jardunak tunelean: nortasun galdua bilatzen eta aurkitzen (Ejercicios espirituales en un túnel: en busca y encuentro de nuestra identidad perdida) 1965an idatzia, baina zentsuratua.
- Jainkoa bada Ipar-Mendebaldean (Existe Dios al Noroeste)
- Aldaketen legea. Plagioen liburua (La ley de los cambios. El libro de los plagios).

c) Oharra / Nota

Dokumentua eta aurkezpen digitala hemen: <http://ehu.academia.edu/XabierRenteria>

7.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Laburpena

Jorge Oteitzak *Quosque tandem*ekin hasi zuen, *Ejercicios espirituales en un túnel*ekin jarraitu, eta azkenik *Nociones para una filología vasca de nuestro indoeuropeo*ekin amaitu zuen gure arbasoen hizkuntza, mundu ikuskera eta artea ulertzeko ibilbide luze bat. Bere hurbilketa, zio kontzeptualetaz landa, sentipen estetikoetatik sortua eta baldintzatua zen, egungo hitzetan “espekulatiboa” eta are gehiago “txamanikoa” dei dezakeguna, “sonema” edo “hitzen oinarriko soinuen bizipena” proposatu zuenean bezala.

Oteitzaren ustez gure arbasoek Hutsaren bizipenean oinarritzen zuten mitologia eta euskarazko hitz asko, bizipen hori Ortzian gorpuzten zutelarik eta horren baitan ulertzen zituztelarik ezagunagoak ditugun Mari eta bere semeak. Mundu ikuskera horrek euskararen eta beste hizkuntzetan utzitako aztarnei tiraka, Mendebaldeko historia Euskal Herritik irakur zitekeela proposatu zuen: Grezia, Kreta, eta Sumeriaren jaiotza kulturalak gure zenbait bidaiari mitikoen eskutik etorri ziren.

Oteitzaren ekarpen zehatzekin bat etorri ala ez, euskararen eta Europako hizkuntzen gaian egun gutxi praktikatzeko den abiapuntu heterodoxoaren ausardia onartu behar zaio: indoeuroparra lehenesten duen ohizko jarreratik baino gure izaera aurre-indoeuroparretik heldu behar diogula arazoari.

b) Abstrac

Jorge Oteitza began in *Quosque tandem*, continued in *Ejercicios espirituales en un túnel* and culminated in *Nociones para una filología vasca de nuestro indoeuropeo* a long human journey to understand the Basque worldview and art. His approach, beyond the merely conceptual, was founded in aesthetic feeling, in a position that could be branded as "speculative" and sometimes even "shamanic", as exemplified by its proposed "sonema" or "essential sense of linguistic sounds".

For Oteitza, the ctonic Basque mythology based on the Earth and its embodiment Mari comes from a previous deepest sentiment of Vacuum and its personification in Heaven. Based on linguistic vestiges left by this Basque worldview in euskera and other languages, came to read the origins of the Western civilization from the antiquity of the Basques: the cultures of Crete and Greece, or those of Sumer and Egypt, were born from or were related to travels of mythic Basque travellers.

Whether or not you agree with Oteitza's specific contributions, we must accept his heterodox courage of analyse the history and the Basque language not from traditional Indo-Europeism, but from our own actual pre-Indo-European origins.

c) Resumen

Jorge Oteitza comenzó en *Quosque tandem*, prosiguió en *Ejercicios espirituales en un túnel* y culminó en *Nociones para una filología vasca de nuestro indoeuropeo* un largo recorrido humano para entender la visión del mundo y el arte vascos. Su enfoque, más allá de lo meramente conceptual, fue fundado en el propio sentimiento estético y en una postura que podríamos tildar de "especulativa" y en ocasiones hasta "chamánica", como bien ejemplifica su propuesta de "sonema" o "sensación esencial de los sonidos lingüísticos".

Para Oteitza la mitología ctónica vasca basada en la Tierra y su personificación Mari proviene de una previa más profunda basada en el sentimiento del Vacío y su personificación en el Cielo. Basándose en los vestigios lingüísticos que esta visión del mundo dejó en el euskera y en otros idiomas, interpretó los orígenes de Occidente desde el pasado del pueblo vasco: las civilizaciones de Creta y Grecia, o las de Sumer y Egipto, nacieron o tuvieron relación con viajes míticos desde el Paleolítico vasco.

Se esté o no de acuerdo con las contribuciones específicas de Oteitza, hay que aceptarle el coraje heterodoxo de leer la historia y la lengua vascas no desde el indoeuropeísmo que condiciona tradicionalmente la cultura vasca, sino desde nuestros propios orígenes preindoeuropeos.

7.3. Txostena / Communication / Ponencia

a) “Nociones” en izaera, metodoa eta ondorioak

Jorge Oteitzak *Quosque tandem* (1963)´ekin hasi zuen, *Ejercicios espirituales en un túnel* (1983)´ekin jarraitu, eta azkenik *Nociones para una filología vasca de nuestro indoeuropeo* (1995)´rekin amaitu zuen gure arbasoen hizkuntza, mundu ikuskera eta artea ulertzeko ibilbide luze bat. Bere hurbilketa, kontzeptualaz landa, sentipenetatik sortua zen, egungo hitzetan “existentziala”, “espekulatiboa” eta are gehiago “txamanikoa” dei dezakegu. “Raíces de nuestra identidad escondidas en el euskera indoeuropeo actual” induskatu nahi ditu, azpi-tituluan “nuestra lingüística actual de inconcebible pobreza”ren gabezietaz arranguraten delarik.

“Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo” xarma handiko liburu bitxia da, “olerki-zatua” ia osorik eta “irudikatua” leku askotan. Erantsi behar dugu ere oso desordenatua dela, sarri inspirazio biziko tupustean egina ematen duena, eta hori dela eta puzzlearen gisa berreraiki beharrekoa delarik (adibidez, zati batzuetako “insightak” aurreko orrietako oinarrietara pasa gabe utzi nahi izan zituen). Oro har altxor kuttuna da, bihotzez eta adiera zorrotzez egindako indusketa baloragaitza.



Bere ibilbideak Artea, Mitoan eta Hizkuntzan dira bereziki. Eta ondorioak, bide horietan baina zabalago, Artean, Mitologian, Linguistikan, Historian...

el ERROR del historiador que comienza / tarde la historia en un Neolítico que / es un muro especular refleja lo que / va pasando después no lo que / hay y pasado antes al otro lado del espejo / he hecho como ALICIA romperlo / e instalarme al otro lado en busca / del comienzo de la historia en Occidente / y la cultura con nuestra primera identidad

Indusketa hori da hastapenetan artearen bidezkoa, batez ere *Quosque tandem* eta *Ejercicios espirituales en un túnel* delakoetan hasitako bideari jarraiki. Azken lan honetan Oteitza buru-belarri murgiltzen da horietan ere aztertutako mitogietan:

Los mitos (...) son imaginaciones para contar escondiendo / historias enlatadas son los mitos / realidad imaginación simbólica.

Hizkuntza hirugarren tresna du, lan honetan artearen bidez eta batez ere mitoen bidez irakurtzen duena:

¿Cuál es el abrelatas para desesconder un mito? para mí y me funciona son las etimologías.

Azkenik, arte, mitologia, eta hizkuntzaren elkarlanak “sonemática” delako metodo batean sintetizatzen ditu, diziplinarte itzelean. Sintesi gisa:


Desde Saussure el lenguaje como suma de la lengua y el habla / los fonemas pertenecen a la lengua los sonidos al habla / pero en mis trabajos

la naturaleza del sonido desborda lo individual, se ajusta al sonido-sentimiento religioso mítico cultural colectivo / le tengo que llamar Sonema. / Le nombro sonema / fonema salvaje / estetifonema

El fonema de los lingüistas pertenece a la lengua, que no existe hasta que no se habla / El sonema está antes / Los fonemas son fijos, limitados; los sonemas son libres, ilimitados, materia fónica de extracción estética expresiva, sensible alerta musical,

Estetiserna es unidad mínima de energía molecular estética; mínima extensión discontinua; 2 espacios + su división o corte como tiempo interno estructural (e-t-e) / toda obra de arte se traduce en cadena de estetisemas / El quantum de Plank, la unidad mínima y discontinua de energía, es físicamente el estetisema / El sonema es un paquete mínimo de energía fónica activa

Jacobson propone submorfemas, partículas elementales componentes asociadas a un significado / hazaña paralela son los sonemas: componentes elementales metafórico-míticos como sub-raíces / Mi Sonemática puede relacionarse con una Fonética como la simbólica / introducción a una Estética lingüística tratamiento visual desde los lenguajes del artista / El sonema es soldadura autógena entre el mito y la palabra / Mis sonemas pertenecen a la creación metafórico-mítica de la lengua poética en el euskera anterior al pensamiento metonímico de la prosa gramatical / subsuelo sitio esencia mágica de las palabras



(Oteitzaren paralelo artistiko-fisiko-linguistikoa, azalpenetako hasieran erabiltzen duen Modriaren irudiaren gain)

Tresna hauen bidez Oteitzak Euskal Herriaren eta, are gehiago, Mendebalde osoaren iturriak aurkitzera bidaiatzen du:

Me acerco al nacimiento del Nilo remo en mi barca con mis 2 muletas / mi emoción profunda es distinguir la autenticidad de estas mitologías preindoeuropeas de tanto folletín grecorromano de inventadas fábulas y copias



me acerco al nacimiento del Nilo
remo en mi barca con mis 2 muletas

mi emoción profunda es distinguir la autenticidad
de estas mitologías preindoeuropeas
de tanto folletín grecorromano de inventadas fábulas y copias

Euskararen eta Europako hizkuntzen gaiari, indoeuroparra lehenesten duen ohizko jarreratik baino, gure izaera aurre-indoeuroparretik heldu behar diogula dio. Berak hobe...


Somos hoy culturalmente hijos de cura y nietos de romano

Beste une batean oso era grafikoan dio ere:

Cuando preguntan a nuestro Joxe Miguel de Barandiaran si él también piensa que todo nos ha venido de Próximo Orienté el Cáucaso Georgia... / contestó bien que la misma distancia había de allá aquí que de aquí allá

Halakoa da eta bere balorazioa:

Nuestros lingüistas todos en indoeuropeo / diccionarios todos Larramendi Azkue Tovar Corominas / de etimología preindoeuropea nada



Somos hoy culturalmente hijos de cura
y nietos de romano

b) Oteitza: lekuz kanpoko “intruder” bat edo “Leonardo” euskalduna?

Oteitza eskultore eta artista aparta zela ezin inork uka. Baina kontutan hartu beharko genituzke mitologian, hizkuntzalaritzan edo metodologia zientifikoan aplikaturiko irizpideak eta lorturiko ondorioak? Zientzialari askok ezetz diote. Linguistikaren legeak edo ekarpenak alboratu izana leporatzen diote, edo linguistika zientifikoa baino haratago joan nahi izatea. Irizpide horretatik, Oteitza dagozkion ez lekuetan ari den “intruder” bat besterik ez da. Eta, are gehiago, lekuz kanpoko “intruder mesianikoa”, bere tonu absolutuetako ideia eta hizkerek zientziaren espezializazioari eta diziplinen mugei, araei eta legeei begirunerik ez diena.

Aldeko sutsuak ditu ere, jakina denez. Gai hauetan Sánchez Simónek (2012) gogoratzen dizkigu, besteen artean, honakoak. Oteitzak zientzia sakon barneratu zuen: Cantorren matematikak, kontzeptu fisiko, kimiko eta medizinkoak aurreratuak, terminologia eta irizpide epistemologi zehatzak... Gainera, bere joera eta zientzia modernoarenak nahiko parekoak dira (denbora eta espazio galilearraren apurketa kasu). Bestalde, diziplinartekotasunean jartzen duen arreta azpimarragarria da. Azkenik, estetikaren tesi ontologikoak eta zehaztasun epistemologikoak argudiatu eta adibide zehatzekin erakutsi zituen.

Edozein kasutan, eta nahiz eta bere “produktu” zientifikoak eztabaidagarriak izan, zientzia sormenari askatasuna ematen dio bere jarrerak. Zientzia asko lan analitikotik dator, baina beste asko sormen asketik (serendipity, insight´ak, etab.). Ezagunak dira adibidez bentzeno gai kimikoaren formula amets batean aurkitu zela, Prigoginek Daliren proposamen psikologikoei emandako euskarria, etabar. Oteitzak zientziaren diziplinarteko oinarrietan izan ditzakeen iradokizunak akaso baloratu gabe ditugu: esaterako, bere Sonemática Fonosinbolismoaren oinarritze estetiko eta fisikalista-minimalista gisa interpreta daiteke (metafora “mondrianiko” eta “kuantiko” horien bidez). Mota honetako irakurketa baikorrak bi muturren artean koka ditzakegu:

- Gutxieneko balorazio baikorrean, Oteitzaren ekarpenekin bat etorri ala ez, egun gutxi praktikatzen den abiapuntu heterodoxoaren ausardia onartu behar zaio: euskararen eta Europako hizkuntzen gaiari aurretik zegoen aurreindoeuroparraren pisua onartzen duen irekiera berri batetatik heldu behar zaiola, eta ez indoeuroparra lehenesten duen ohiko jarreratik, ia (edo ez hain "ia") irakurketa guztien irizpide zientifiko bilakatu duguna. Alde horietan abiapuntuei eta ideia sareei gogoeta eta oinarri berriak ahalbidetzen ditu.

- Gehieneko balorazioan, honakoa galdetu diezaiokegu gure buruari. Demagun egungo mendebaldir kultura historikoki oinarritu duen estaturen batekoak garela: "Oteitza" eta bere "originaltasuna" ez balira XX. mendeko Euskal Herrian jaio, XV. mendeko Italian baizik, ez ote genituen "Leonardo" eta "jenialtasuna" deituko?

Goazen orduan, askatasunez blai, euskararen jatorriari buruzko eta euskaldunen egite historikoei buruzko oteitzar iradokizunak ezagutzera, bere azken liburu handi hau ibilbide harturik.

c) Hizkuntza indusketa

Lascauxeko ingurune kulturean kokatzen du bere burua Oteitzak, K.a. 14.000. urteko artista eta ehiztarien adieran, eta zein aitzineuskara hitz egin zezaketen galdetu. 2 erro nabarmentzen ditu:

ARR arro hueco, como gran Hueco-Madre del cielo y como Hueco-trampa de cazador

AN allí que en nuestra cultural original es ALLÍ el sol

Hizkuntza monosilabiko bat suposatzen du 2 morfema hauekin, «un constructivismo espacialista metafórico visual>>. Geroago beste morfema bat eransten du:

he desenterrado ARi / hilo solar día / salvación / salir de la noche / (su sentido originario proteger asegurarse)

Hiru item hauekin bere "operador etimológico" osatzen du aitzineuskara induskatzeko:

trinidad preindoeuropea de morfemas / indispensable / para nuestra investigación en etimologías / ARRo AN ARi / allí donde los encuentro / donde los encontremos / nos dirán lo que dicen / desenterramos milenios en silencio


Adibide esanguratsua, eta akaso horrengatik lehena Oteitzaren azterketan, "arrate" hitza du. Azkueren arabera "ar" edo harri hitzetik dator; Mitxelenaren etimologian arabismo bat da; eta Oteitza harriturik dabil "arr-o" edo "hutsune" gisa ez dutelako zundatu.

ARR-o es matriz lingüística para huecos / gran Hueco-madre del cielo y / huecos-trampa de nuestro cazador / Prehistoria del artista cazador con su cultura de huecos / se refiere al hueco de la mano

Eta etimologia hori aitzin euskal mundu ikuskerarekin lotzen du:

ARRo lingüísticamente / morfemas de contacto / para construir / un nombre / una palabra / en euskara preindoeuropeo / como sitio activo / con el vacío del cielo

Horrela, bere eskulturetan hutsuneak iradokitzen dituzten zutabeen pare jartzen ditu morfema hauek:



monumento al Prisionero político desconocido, Londres 1953

“Arro”, “An” eta “Ari” delakoetan hainbat hitz modernoek etimologia dakusa Oteitzak; adibidez:

Arr-Uts Hueco Vacio conservamos para huevo arrautsa / izar estrella itz-ar ser en el Cielo, potencia del ser / bear necesidad es be.arr abajo en el fondo del hueco-trampa / Arr-An arrano, el más cazador de las aves. / artista es tramposo hacedor de trampas / AR Reba para hermana con AR R cóncavo vientre del cielo / ANal para hermano / anábasis ascensión o andro hombre, se explican desde an- / anábola, lanzar hacia arriba / ENKidu ANKide acompañante (en la expedición al país del sol nauta, argonauta es lo mismo) / ARI / en Azkue es de arin / ezanian es preciosa voz para invisible / ya que visible [es] arin-an hilo solar, luz de- día que hace visible la salida / arroin columna pero no por piedra sino por creación / -su-go-itx ser que sube verticalmente para roble y genérico / GORBEA Go-arriba-Arro-hueco-Be-debajo

Horrela, bere “operatzaile etimologikoak” eraikitzen ditu:

OPERADOR ETIMOLÓGICO PREINDOEUROPEO			se amplía en VOCABULARIO	
ARRO	AN	ARI	ESK	ITZ
Arro m arro arra arrano arroin arte argo argi Arr arri s arri b arri j arri l arri err erre erri	ARRoAN ARR-ate arrAN Anai Arreba igo-AN igande anka ananké anankor igandea anankia (eguzkia ekia eki) ENKIDU ANKIDU ANKide	ARI Aria ARI-AN eskutari esk-ari K-ari Ketaria m-Ari	ESKU/ARA eskera Eskualdun Euskaria eskutaria KETARIA	ITZ-ARR izarra ITZ-al ITZ-il Karia eskarios Karios
GO	BE	BIL	SU	SEN
Go go Go gu gu gu igo GU ego egaz egoal SEN GO igo-AN igande	BE ARR bear bego begi biga bi belar ibe ebe ibi SEN BE	BIL ARR GO bilargi ibil bildur billatu billota biluts	SUIN sain SALDI SU SEN SUTik sutara SU GO ARR sugar suGO suBE suge SUarr Sare	SEN SEN SESEN SESENA SUsen SU SEN SU tik SEN BE sutara SEN GO

d) Mitologia indusketa

“Ama Jainkosa” edo “Venusak”, mitologo moderno askok bezala, Neolitiko “berantiar” batekin lotzen ditu Oteitzak, eta paleolito “goiztiarrera” jotzen du mitologia aurreindoeuroparraren iturriak ezagutzera.

MARI como diosa suprema ¿pero desde cuándo? / retrocediendo 900. años / MARI tiene 2 hijos / Atarrabi y Mikelats / pero en Atarrabi encontramos el ARR / me doy cuenta que ha perdido el fonema inicial b / BAT-ARR-BI en un cielo 2 / el Día y la Noche / nuestra identidad original como Cultura del cielo

Hau da, bere ustez, gure mitologia matriarkalista mitologia aitzindariago eta biltzaileago baten baitan ikusten du, bai lurra eta bai zerua biltzen dituen mitologia zerutar batean.

BATARRABI eti. 2 en uno. / en un cielo 2 / triángulo cosmológico simbólico gran / Hueco-madre matriarcalismo celeste arquetipo / religioso clave identidad original como Cultura / del cielo en nuestro magdalenense culminación / muralismo Lascaux Ekain Altamira

tenemos, pues / 2 mitologías / una preindoeuropea cultura de cazadores y artistas, una cultura del cielo / una cultura visual espacialista con ARRo / y otra indoeuropea de agricultores cultura de la tierra una cultura verbal y / del Tiempo con LUR tierra que contiene UR agua / BATARRABI triángulo cósmico matriz / MARI en tradición a desenterrar / mARI / hilo de salvación / hilo materno / amARI madre salvadora / Ortiz-Osés me felicita por acertada etimología

Laburbilduz:

NUESTRO MATRIARCALISMO ORIGINAL ES COSMOGÓNICO

Eta ideia horiek, berriz ere, euskarri etimologikoarekin sendotzen ditu:

NUESTRO MATRIARCALISMO ORIGINAL (...) / nombra a Dios Go-izan / le servirá para gizon será lo mismo / para llamarse hombre / para andere mujer ANere también celeste / etimología de MARI / mARI / ARTeme cazadora en preindoeuropeo será / en griego Artemisa

Aurreindoeuropar eta indoeuropar desberdintasuna, mitologia borne orokorrean, “mundu honek” hartzen duen lekuan datza beraz:

la Tierra unida al cielo / en nuestro génesis / la Tierra se separa del cielo / en el nacimiento griego / así sus humanos demasiado humanos / dioses y terrestres mitos / averiados y risibles / culebrones



e) Historia indusketa

Hari historiko-kronologikoa nahiko galdua da *Nociones*-en, baina honela berreraiki daiteke. Hasteko, Auñamendietako paleolito kulturak behar besteko garrantzia berreskuratzen du. Froga Isturitzen agertzen den zaldi bat omen da, beraien hezte edo etxekotzeen zantzu argiak dituelako (“muestra claramente bocado, freno y riendas):

Se piensa que no se domestica en el mundo antes del Bronce (-2.000) / aquí en nuestra prehistoria nos adelantamos en unos 10.000 años.

Bestetik, txamanismoa oinarritzen du ere margo hauetan (ondorengo indoeuropar kulturen euskaldunek duten garrantziaren erakusle bat emateko aprobetxatuz):

y cabeza sola de caballo al lado de esta cabeza de caballo / sola / pertenece al Hombre-caballo / cuyo cuerpo no se puede colocar / en el mágico muro-rama-del cazador / es la alianza preindoeuropea / de hombre y caballo

miles años / después será con Fideas / hombre-caballo. / con cuerpo de caballo y la otra / mitad de hombre el centauro.

Gisa honetako zantzuek iradokitzen diote Oteitzari kultura mendebaldarraren lehen iturria Paleolitoko Añamendiak izan zirela:

nosotros navegamos fuimos mucho antes / buscando el país donde nacía el sol / los primeros intentos de expedición / definiendo después de nuestro Aziliense / de los guijarros marcados al final / del muralismo -8.000 / y clima húmedo y más cálido

Badaki, jakin ere, hipotesia abenturazalea dela, baina ausarta da gure idazlea:

El lingüista no termina -de creer en contactos de remotas lenguas / de oriente a occidente le gustaría / de occidente a oriente no se atrevería ni a pensarlo. / seguimos en lo de siempre: el vasco ¿isla?

Eta hipotesi ausarta horri eusteko Mendebaldearen sorkuntzako epopeia handiak euskaldunen iturritik ulertuak izan daitezkeela proposatzen du:

memoria en las 2 primeras epopeyas de Occidente / de una epopeya anterior preindoeuropea en nuestra / Prehistoria vasca como CULTURA DEL CIELO

Lehen inplikazioa Europako lehen zibilizazio handiari dagokio: Kretari. Minotauroren mitoa euskal bidaiariena litzateke, eta Kreta halako "Euskal Herria Berria" bat. Argudioak, aurrekoetan bezala, mitoen eta hitzen genesi irakurketak:

encierra CRETA la identidad primordial de nuestro / preindoeuropeo como primera epopeya / de Occidente no revelada hasta / ahora (y por mí, ya me perdonaréis)

mitología cretense del Laberinto / memoria escenificada simbólica / de nuestra expedición al país del nacimiento del sol / estación cretense

el viaje lleno de dificultades / todos los expedicionarios son Teseos / en la noche todos los expedicionarios amenazados / encarcelados en lo oscuro son minotauros / todos Arianos de día salvados

Ariadna / ari-an hilo-sol el día hilo solar el amanecer que orienta a los expedicionarios todos / Minotauro min en vasco preindoeuropeo es daño peligro, min.ta-ari, / mino-tauri hilo de oscuridad peligro temor daño / de min MINOS dinastía de los que saben de peligros

CRETA corno siguiente y nueva ESKERIA en la mítica expedición / eskari día salvación / Kari hilo en la mano Eskutari salvación Eskeretan Eskera Kereta > KRETA

Argudio gehigarriak lortzen ditu Homeroren 5. *Kanta* ("Alcinoos ordenó (...) que danzaran (...) tomaron [una] pelota de púrpura") Hutsa goraiatzeko egindako euskal jolas mitikoen bidez azaltzean, edo Mediterraneoko toponimoak aurkitzean "esku"-alde hauetan:

la ruta de nuestra Epopeya en el Mediterráneo está llena de / Esku.t ARI hilo (el día el amanecer en la mano) / Eskeria hilo en la mano como

salvación / karios los primitivos cretenses, / Corfú era Eskaria / eskutaris (en Estambul y Albania)

Atenas Ate-an puerta-sol / antes de alcanzar Creta

Horrela, euskal bidaiariak Greziako kulturaren sorrera marratzen duen epopeiaren gunea dira, eta Greziako jainko nagusiak ere euskal etimologian ulertuak izan daitezke:

una relación demostrable / el origen cultural de Grecia / en nuestro preindoeuropeo

se le puso aquí / ARRk-ume = criatura del cielo (...) el viaje del vellocino / por aire (...) no podía aceptarse (...) tenía que haber sido por mar. / . con el vellocino de oro, la piel del carnero mágico / atado a la proa del barco (...) carnero arkume

ari--are hilosolar, luz de que hace visible la / salida / del laberinto para Teseo que huye del Minotauro, / Teseos expedicionarios que salen del peligro de lo oscuro en las noches de su iniciático religioso viaje laberinto

el dios celeste URANO primero de los dioses griegos / es preindoeuropeo / .sus HIJOS los titanes se sienten / griegos se independizan eliminando a su padre / su cultura original / su cosmogonía y sus mitos / arrancan de los nuestros / operan lo mismo / nacen en nosotros se separan / se cambian y son ellos / URANO (UR-AN agua-sol) es preindoeuropeo / sus hijos (...) conservan apellido AN preindoeuropeo / tit-AN

Sumertarrekin erlazioa egiten du ere Oteitzak aitzin euskaldunen bidai mitiko hauetan. Alderaketa paralelismoak zundatzen ditu baina ez hain sakon, zenbait etimologiatara eta kronologiaren aldetara gaia murrizten duelarik.

-2.500 epopeya GILGAMESH y Ankidu como memoria mítica de expedición preindoeuropea occidente (...) ENkidu ANkidu ANkide acompañante (en la expedición al país del sol nauta, argonauta es lo mismo) / había acampado Ankidu en cercanía a la ciudad de GILGAMESH / simboliza grupo expedición eso es en preindoeuropeo / GILGAMESH procedía de occidente SESEIVA toro (de sera instinto sesea instinto-instinto=toro)

Pare gertatzen da aitzin euskaldunen eta egiptoar garaien paralelismoak zundatzean; ez du hainbeste garatzen. Baina honetaz landa, liburuaren azkenean eta era oso kriptikoan egiten du:

primera identidad egipcia en nuestro occidente / nuestra Cultura del cielo Egipto en su memoria occidental / El gran viaje del Nilo que baja del cielo / tierra y cielo unidos como en nuestro preindoeuropeo (...) ISIS el sol OSIRIS la sombra / nuestra luz escondida / y padre de ORUS que anda y vuela / tierra y cielo inseparados / 12 personajes reman en la barca divina (hora 9 . / Libro de las horas) / llevan la luz a las estrellas / que no habitarán sin larga / espera de inmortalidad en lo oscuro /de sus tumbas ocultas en intemporales / geometrías artificiales de piedra y arena / recordamos / nuestros santuarios en cuevas naturales / recordamos nuestras pinturas pactos de imagen (...) escritura de figuras sagradas esquemáticas (...)

Kasu honetan ulerpena zaila dela onartzen du Oteitzak (akaso horrengatik gure artearen gaineko *excursus* bat itsasten du horretan sartu baino lehen), bere sentikortasun xamurrak begirunea gordetzera daramalarik:

me impresiona estéticamente me atrae religiosamente / esta civilización que uno quisiera penetrar y no lo logrará nunca y así la prefiero

f) Albondorioak

Amaitzeko, Oteitzaren zenbait albondorio ekarpen ikusbera gogoratuko ditugu. Hasteko, sonematika metodoa aplikatzean euskararen hizkuntzen iturri estetiko-sonemikoa oso ondo gordea dakusa:

la raíz, si es preindoeuropea, su prehistoria es artística, y ésa sí, en el euskera es sonema / el euskera nace como dialecto del compuesto existencial mítico indivisible de los lenguajes

Onartzen du zaila dela aitzineuskara zaharra eta paleolitoko euskal kultura ezagutzea, baina indusketa mota honi balorea ematen dio:

Fue sin duda una gran cultura de la madera, sus creaciones no resistieron el tiempo, sobrevive el testimonio lingüístico en el marco contextual de estos primeros sonemas.

Euskararen atzean gorderik dagoenari egin behar genioke so, beraz:

se funda nuestro sistema lingüístico en mirar la Naturaleza y consultar el cielo / begi ojo. la verdad egi en la mirada / en el Oriente bíblico / primero es el verbo la palabra / en nuestro Occidente es primero la mirada / el estar (izan es sido) / cuando queremos decir tengo una casa lo que decimos en realidad / una casa es tenida por mí / el estar (antes que el ser) / luego el movimiento /

piensa así el pintor en sus paredes / primero la casa (el bisonte) el dato visual. / lo que ya tiene imagen estado pictórico, / el estar (antes que el ser) / luego el movimiento / y finalmente el agente de la voluntad expresiva / el sujeto verbal /

en euskera se habla al revés porque ha quedado / para siempre dentro del euskera / la forma de ver del pintor

“Euskal” hitzaren etimologia, horrela, Agosti Xahoren ildotik dakusa; baina haratago, arte eta historia aldagaiak sartuz:

¿de quién es la mano que hay dentro de nuestro esku-era? / Eskueldun no es nuestro habla oral / es el expresarse con la mano del pintor / eskueldun es el artista que habla

Oteitzaren “tratamiento visual del euskera” sonematikoa hain xamurra eta leuna izanik, letren atzean egon daitezkeen kolpe emozionalak sentitzeko gai da ere:

una hache mal colocada por los gramáticos o / sin necesidad puede producir un paro cardíaco en el sonema / y perturbar gravemente al niño / si el euskera no se le abre al niño como un juego lleno de sorpresas / imaginación lingüística y visual con todos sus demás juegos / no habrá niño nuevo

g) Amaiera: gure herriaren kontraesanei buruz


Liburuaren leku desberdinetan Oteitzak gure herriaz dugun irudi txikitzaileari egin ohi dizkion kritikak errepikatzen ditu:

[Getariako sasi-uharteari buruz] de un pueblo que descende de balleneros y que a un monte de ballena que entra en el puerto la confunden con un ratón que está saliendo ¿qué puede esperarse?

Baina xarma handiko liburu kuttun honen azkenetan, gure etorkizunerako duen itzaropena eta -bide berean- planteatzen digun erronka argi uzten ditu:

la mano que está dentro del euskera tiene que vivir / en nuestra conciencia y en la moral el valor / de los comportamientos de un verdadero abertzale

Betebehar horretan berak egindako esfortzua liburuaren azken esaldi hunkigarri batzuetan deskribatzen du:



Hemen geldituko nintzateke.
Gure jatorriantzi hurbiltzen naizen
malasunaz
zerbait dakust
nere humuneko inkonstzientean
izan naizena
Hemendik hurrin bizi naiz
eta bertantxe da

